

# EKONOMIA SOLIDARIOARI BURUZKO MAL-EN 2.UNIBERTSITATE LEHIAKETA



## 1. XEDEA

Deialdi honen helburua da Ekonomia Solidarioaren esparruan ikasketak eta ikerketak bultzatzea eta sustatzea. Horretarako, hiru sari emango zaizkie Master Amaierako Lan Onenei (MAL), gai horri dagokionez.

**REAS Euskadik** eta **Bilbao Ekintzak** (Bilboko Udala) Ekonomia Solidarioako beste erakunde batzuekin bultzatutako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloak - **EKONOPOLOak** antolatzen dituen jardueren barruan kokatzen lehiaketa hau.

Lehiaketak, halaber, honako unibertsitate-erakunde hauen laguntza du:

- **GEZKI**, UPV/EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua.
- **Hegoa**, UPV/EHUko Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua.
- **Lanki**, Mondragon Unibertsitateko Ikasketa Kooperatiboaren Institutua.
- **Deustuko Unibertsitateko Ikasketa Kooperatiboaren Institutua**.

## 2. GAIA

Aurkeztutako MALe Ekonomia Solidarioarekin zerikusia duen edozein alderdi jorratu beharko dute, eta, besteak beste, honako gai hauek sar daitezke bertan:

- Ekonomia solidarioaren sektorearen kontzeptua eta ezaugarriak, sektore bereizi gisa eta berezko ezaugarriak dituen gizarte-ekonomiaren eremuan.
- Ekonomia solidarioaren eremuko berezko tresnak eta garapenak: finantza etikoak, merkatu soziala, bidezko merkataritza, auditoria soziala, lankidetzeta, herritarren asoziazionismoa eta kooperatibismoa, ekonomia komunitarioak, etab.
- Ekonomia Solidarioaren eta beste ekonomia kritiko eta eraldatzaile batzuen arteko harremanak, hala nola, feminista, ekologikoa, komunitarioa.
- Ekonomia Solidarioa tokiko eta nazioarteko erakundeak, sareak eta mugimenduak.

## 3. SARIAK

Sariak honako hauek izango dira:

- 600 €-ko lehen saria **REAS Euskadiko bazkide** diren erakundeen produktu eta zerbitzuetan, hautatutako MALaren egileak aukeratu ahal izango duena.
- 400 €-ko bigarren saria **REAS Euskadiko bazkide** diren erakundeen produktu eta zerbitzuetan, hautatutako MALaren egileak aukeratu ahal izango duena.
- 200 €-ko hirugarren saria **REAS Euskadiko bazkide** diren erakundeen produktu eta zerbitzuetan, hautatutako MALaren egileak aukeratu ahal izango duena.

Lan irabazlea EKONOPOLOko hedabideetan iragarriko da eta REAS Euskadiren **web orrian** kontsultatu eta zabaldu ahal izango da.

## 4. HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango du 2023an eta 2024an bere MAL arrakastaz defendatu duen edozein ikasle, honako unibertsitate hauetan:

- Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mondragon Unibertsitatea.
- Deustuko Unibertsitatea.

## 5. LANEN AURKEZPENA

Lanak modu elektronikoan bidali beharko dira **reaseuskadi@reaseuskadi.eus** helbidera.

Aurkezteko epea 2024ko urriaren 25ean amaituko da.

## 6. LANEN EZAUGARRIAK

Lanek ezaugarri hauek izango dituzte:

- a. Lanek originalak izan behar dute, eta euskaraz zein gaztelaniaz idatzita egon behar dute.
- b. Aurkezteko epea itxi baino lehen defendatu eta onartu behar izan dira lanak.
- d. Aurkeztutako lanak lehen aipatutako Ekonomia Solidarioarekin lotutako gaietan kokatu behar dira.

## 7. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Lanak baloratzeko irizpideak honako hauek dira:

1. MALaren kalitatea eta originaltasuna.
2. Egitura eta metodologia ezarritako helburuetara egokitzea.
3. Ondorioen garrantzia eta ekarpenen erabilgarritasun potentziala, aplikazioa eta interes soziala.

## 8. EPAIMAHAIA ETA ERABAKIA

Ekimenean parte hartzen duten unibertsitate- institutuetako ordezkari akademikoek osatutako epaimahaiak baloratuko ditu lanak.

Saria hutsik gera daiteke. Epaimahaiaren erabakia apelaezina da.

Erabakia 2024ko azaroaren 29an argitaratuko da, eta sariak Bilbon, EKONOPOLOan, antolatutako ekitaldi batean emango dira, abenduan zehar, eta saritutako lanen egileek bertara joan beharko dute.

## 9. SARITUEN BETEBEHARRAK

Sarituak, egileta-eskubideak emateari dagokionez, bermatu egiten du eta REAS Euskadiren aurrean erantzukizuna hartzen du jabetza intelektualaren arloan aplikagarri diren xedapenak eta aurkeztutako lanaren gaineko jabetza intelektualaren eskubideen existentzia eta titulartasun legitimoaren arloan aplikagarriak diren xedapenak betetzeko, eta deklaritzen du horiek aurkezteak, zabaltzeak eta sariaren esparruan argitaratzeak ez dituztela hirugarrenen eskubideak kaltetzen.